

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Dosierra abiaraztea; azken miliako banaketa jasangarriko guneko mikrologistikoa sortzeko udal titulartasuneko higiezin bat alokatzeko kontratua esleitzeko baldintza-agiria eta deialdia onestea

Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat lokalen jabe da, eta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean ezarritakoaren arabera, lokal horiek kudeatu egin behar ditu, indarrean dauden politika publikoak garatzen eta gauzatzen lagunduta.

Udala Vera-Fajardo Margolariaren kaleko 13-15 zenbakietan dagoen merkataritza-lokalaren jabea da –lokalaren sarrera Vicente Abreu Margolariaren kaleko 7.ean du–. Lokal hori udalaren ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean I-1792 erreferentziarekin dago alta emanda, eta ondare-izaera du.

Lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko uztailaren 2an. Oinarrizko prezioa, lizitatzailerik gora eginez hobetu ahalko duten lizitazio-tasa, zortzi ehun eta hogeita bederatziko euro eta hirurogeita hemezortzi zentimo da (829,78 euro) hilean. Kopuru horretan ez daude sartuta zergak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahal izango da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25), alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <https://v-g.eus/hub-mercancias> helbidean kontsultatu ahalko da.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian –Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25-behea; 01008 Vitoria-Gasteiz– aurkeztu beharko dira proposamenak, 8:30etik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2024ko irailaren 15a izango da azken eguna.

Postaz igorritik gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lizitatzailerik, eta bidalketaren egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Bi eskakizun horiek bete ezean, ez da proposamena onartuko, deialdia egiten duen organoak iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen bada. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direlarik proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-bete-kizunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatzailerik proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko <https://v-g.eus/hub-mercancias> helbidean argitaratuko da.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta Tokiko Gobernu Batzarriari helaraziko dio esleipen-proposamena, hark onets dezan.

Esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik 10 egun naturaleko epean, esleipendunak eskainitako alokairu-errentaren bi hilabeteri dagokion kopurua jarri beharko du.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak, halakorik bada.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 8an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO